

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

258/2016 Foru Agindua, urriaren 18koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urtarrilaren 27ko 12/2016 Foru Aginduan ezartzen diren baldintzak onartzen duena; foru agindu horren bidez behin betiko onartu zen Bastidako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, "Alto El Otero" deritzon tokian, upeltegia ezartzeko plan bereziaren espedientea, baldintzak ezarrita

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Urtarrilaren 27ko 12/2016 Foru Aginduak behin betiko onartu zuen Bastidako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, "Alto El Otero" deritzon tokian (katastroko 343., 140-A eta 55. lursailak, 1. poligonoa), upeltegia ezartzeko plan bereziaren espedientea, baldintzak ezarrita.

Bigarrena. 12/2016 Foru Aginduak, gainera, zehaztutako baldintzak ez zirela funtsezkoak iritzita, honakoa ezarri zuen: behin horiek zuzenduta, espedientea Foru Aldundiari igortzea berriro ere jendaurrean jarri gabe, behin betiko onartzeko, haren betearazketa aitortzeko, izapidetzeko eta argitara emateko.

Hirugarrena. 2016ko urriaren 6an, espedientearen testu bategina jaso zen Aldundiaren Erregistroan.

II. OINARRIAK

Dokumentazio guztia aztertuta, egiaztatu da gorago aipatutako foru aginduan ezarritako baldintza guztiak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urtarrilaren 27ko 12/2016 Foru Aginduak ezartzen zituen baldintzak; foru agindu horren bidez behin betiko onartu zen Bastidako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, "Alto El Otero" deritzon tokian (katastroko 343., 140-A eta 55. lursailak, 1. poligonoa), upeltegia ezartzeko plan bereziaren espedientea, baldintzak ezarrita.

Bigarrena. Ebazpen hau eta berari dagokion hirigintza arautegia argitara ematea ALHAOn.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, berau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako Salan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

BASTIDAKO (ARABA) "ALTO EL OTERO" TOKIAN UPELTEGIA EZARTZEKO PLAN BEREZIA**ORDENANTZA ARAUTZAILEAK****I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua: Lurralde eremua**

Ordenantza hauen xedea da arautzea nola erabili behar den Bastidako udalerriko (Araba) 1. poligonoa (343. 140A eta 55. lursailak), "Alto el Otero" deritzon tokia, upeltegia ezartzeko. Upeltegian Errioxa JDKn sartuta dauden ardoak egin, biltegitatu, ondu, ontziratu eta salduko dira, diziplina anitzeko proiektu baten barruan; hain zuzen ere, upeltegian enologia, mahastizaintza eta teknologia berriak bateratuko dira. Ordenantzan emandako ezarpenak arautzat hartuko dira antolamendu planoen esparruan.

2. artikulua: Edukia

Ordenantza hauek jardun esparruko lurzoruaren kalifikazio guztiak arautzen dituzte, bai eta hura garatzeko ezartzen diren planeamendu tresnek bete behar dituzten zehaztapenak ere.

Plan berezi honek zehaztuko du nola zatitzen den esparrua zonetan lehentasunezko erabileren arabera.

Ordenantza hauetan hiru atal handi daude:

- Xedapen orokorrak
- Lurzoruaren hirigintza araubidea
- Zonetako ordenantza bereziak

3. artikulua: Betebeharrezkotasuna

Ordenantza honetako artikulua nahitaez aplikatu beharko dira plan partzialaren esparruan egiten diren jarduketa guztietan.

4. artikulua: Indarraldia

Ordenantza horiek plan bereziaren behin betiko onarpena argitaratzen denean jarriko dira indarrean. Indarrean egongo dira harik eta ordeztzen edo aldatzen dituzten ordenantza berriak behin betiko onartu arte. Guardiako (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialean eremu funtzionaleko nekazaritzako eraikuntzez eta upeltegiez ezarritako arauen bat aldatzen bada, nahitaez bete beharko dira Lurraldeko Plan Partzialean ezartzen diren parametroak.

5. artikulua: Dokumentazioa

Plan berezi honetan agiri hauek daude:

- Memoria
- Ordenantza arautzaileak
- Planoak
- Eranskina: Lursailen lotura, Guardiako (Arabako Errioxa) LPParen 1. aldaketaren arabera

6. artikulua: Agirien indar arautzailea

Antolamendu planoek eta ordenantza arautzaileek hirigintza jarduna arautzen dute. Horrenbestez, haietan ezartzen dena nahitaez bete behar da Plan Bereziaren esparruan egiten diren jarduketa guztietan.

Plan Bereziako gainerako agiriak, funtsean, informaziorako eta azalpenerako dira; horrenbestez, kontraesanik agertzen bada haien eta lehen aipatutakoen artean, lehen aipatutakoek edukiko dute lehentasuna.

7. artikulua: Gauzatzeko tresnak

Plan Bereziako tresnak abian jartzen diren faseak gauzatzeko proiektuak izango dira. Proiektu bakoitzean kontuan eduki behar da berari urbanizazioan dagokion zati proportzionala.

8. artikulua: Kontzeptuen esanahia

Kontzeptu hauek ezartzen dira:

8.1. Sestra. Lurraren edo zoladuraren horizontalarekiko malda zehazten duen lerroa da.

Bi sestra mota daude:

Galtzada eta espaloien sestra. Bidearen luzetarako profila da.

Lurraren sestra. Lurraren sestra naturala (eraldaketa jasan ez badu) edo artifiziala (lur berdinketa, lur erauzketa edo betelan batek sestra naturala aldatu badu).

8.2. Atzeraemangunea. Lursailaren mugaren eta eraikinaren fatxada lerroaren artean dagoen distantzia.

8.3. Atzeraemangunearen neurketa. Atzeraemangunea, aurrekoa zein atzekoa, erreferentziako mugakidearekiko perpendikularrean neurtuko da, puntu guztietan.

8.4. Okupatutako azalera. Eraikinak lursailaren gainean bertikalki daukan proiektzioa. Okupatutako azalera guztia neurtzeko ez dira aintzat hartuko teilatu hegala eta markesinak.

8.5. Okupazio koefizientea. Okupatutako azaleraren eta lursailaren azalera osoaren arteko erlazioa adierazten duen ehuneko.

8.6. Gehieneko azalera eraikigarria. Lursail batean egin daitezkeen eraikinetako solairu guztietako guztirako azalera; esleitutako aprobetxamendu indizea (m^2/m^2) aplikatuz sortzen da.

8.7. Eraikuntzaren altuera. Eraikina ukitzen duen lursailaren puntuaren eta estalkiaren forjatuaren intradosaren arteko distantzia.

8.8. Bolumen eraikigarria. Solairu guztietan eraiki daitezkeen bolumenen batura. Kalkulua egiteko eraikitako azalera solairuaren altueraz biderkatu behar dira.

8.9. Jardun esparruaren eraikigarritasuna. Jardun esparruan gehienez eraiki daitezkeen azalera eta horren azalera osoaren arteko zatidura da. Honela adierazten da: m^2/m^2 .

II. KAPITULUA. LURZORUAREN HIRIGINTZA ARAUBIDEA**9. artikulua: Kalifikazio orokorra eta xehatua**

Kalifikazio orokorra: Bastidako (Araba) Arau Subsidiarioetan 1. poligonoko 137., 142., 144. (A-B-C-D), 156. eta 332. lursailen eta 140-A lursailaren zati baten kalifikazioa aldatzeko ezarri diren zehaztapenean finkatzen da (aldaketaren ondorioz lursailak ez daude lehengoratu beharreko baso zonan, baizik eta erabilera mugatuko nekazaritza zonan).

Kalifikazio xehatua: Lurzoru mota hauek daude:

- Berdeguneak
- Bide sarea eta aparkalekuak
- Zerbitzu zona
- Upeltegia eta eraikin osagarriak

10. artikulua: Zonen zatiketa

Aurreko kalifikazioak ikusita, esparrua erabilera xehatuen arabera zatitu da, hirigintzako araubideari jarraiki:

- Bide sistema
- Berdeguneen eta espazio libreen sistema
- Zerbitzuen sistema
- Eraikinen sistema

Kategoria horiek guztiak "Zonifikazio xehatua" planoan adierazita daude. Horien erregulazioa zona bakoitzaren ordenantza partikularrean ezartzen da.

*I. ATALA. URBANIZAZIO PROIEKTUEN ARAUBIDEA***11. artikulua: Xedea**

Urbanizazio proiektuak obra proiektuak dira. Beren xedea plan berezian jasotako zehaztapenak gauzatzea da, bereziki bide sareari (ibilgailuena eta oinezkoena), azpiegitura eta zerbitzuari (ur horniketa, saneamendua, argindarra, argiteria, telekomunikazioak, etab.) eta guneei eta berdeguneei buruzkoak direnak.

12. artikulua: Urbanizazio proiektuen esparrua

Esparrua materialki gauzatzeko, bide sare eta espazio libre gisa definitzen diren espazio guztiei eragiten dieten urbanizazio proiektuak idatziko dira.

Proiektuetan hornidura iturrietatik (are esparrutik kanpokoetatik ere) egin litezkeen zerbitzu konexio guztiak agertu behar dira, funtzionamendu egokia ziurtatzeko.

13. artikulua: Plan Bereziko zehaztapenen lotura maila

Urbanizazio proiektuak ezin ditu aldatu Plan Bereziko oinarritzko ezarpenak. Hala ere, ezarpenak egokitu ahal izango dira obra gauzatzeko beharrezko teknikoak direla eta; horretarako, egokitu beharra frogatu beharko da eta ezin izango dira aldatu Plan Berezian kalifikatutako lurretan, ez lurzorua edo eraikinen antolamendua eta araubidea aldatu. Izan ere, hala gertatuz gero, Plan Berezian aldaketa izango litzateke eta aurretik izapideak egin beharko lirateke.

14. artikulua: Urbanizazio obra guztietarako

Urbanizazio obretan nahitaez bete beharreko indarreko araudi sektoriala aplikatuko da, bai eta zerbitzuak egiten dituzten enpresen berezko araudia ere.

Azpiegitura zerbitzuen sareen eskemen planoetan adierazten diren ibilbideak azalpenerako baino ez dira; beraz, urbanizazio proiektuen inguruko azterketa eta kalkulu zehatzagoen ondorioz aldaketak egin daitezke, bidezko arrazoiak emanez gero.

15. artikulua: Urbanizazio proiektuaren baldintza teknikoak energia berriztagarriez

Energiaren kontsumorako efizientzia hartuko da aintzat. Horretarako, Plan Berezian energia berriztagarriaren ekoizpena sartuko da, kontsumo zuzenerako zein zeharkakorako. Horren bidez ingurumenaren gaineko eragina murriztuko da, eta horregatik lehentasuna edukiko du energia sortzeko eguzki plaka fotovoltaikoak eta hiriko haize sorgailuak erabiltzeko.

**III. KAPITULUA. EREMU BAKOITZEKO ORDENANTZA BEREZIAK
ERAIKUNTZARI ETA ERABILEREI BURUZ****16. artikulua: Okupazioa eta gehieneko eraikigarritasuna**

Jardun esparruko lursailen eta bideen azalera 45.452 m² da, guztira, gutxi gorabehera. Ordenantza hauetan arautzen diren jardueretarako erabiltzen diren eraikinek ezin dute okupatu lursailaren azaleraren ehuneko 30 baino gehiago. Gainera, sestra gaineko eraikigarritasuna, lursailaren azalerari bakarrik aplikatuko zaiona, 0,30 m²/m²s izango da gehienez; eraikin bakoitzeko aprobetxamendua ezin da izan 8.000 m² baino gehiago. Hainbat eraikin independente onartuko dira, udal plangintzak distantzia, orientazio eta abarrei buruz ezarritako xedapenak kontuan hartuta.

Hurrengo artikuluetan eraikuntzari eta erabilerei buruzko arauak ezartzen dira, zonifikazio xehatuaren zona edo kategoria bakoitzekoak.

17. artikulua: Zerbitzu sistemaren zonei buruzko ordenantzak

Denetariko zerbitzuak egiteko, ura hornitzeko, energia elektrikoa hornitzeko, saneamendurako, argietarako eta telekomunikazioetarako behar diren azpiegiturak eta gaur egun zein etorkizunean teknikaren bilakaeraren arabera denetariko eraikuntzek eta eraikinek beren erabilerearako eduki beharko dituztenak dira. Zerbitzuen euskarri eraginkorrak eta funtzionalak izateko aplikatu beharreko babes neurriak zehazten dira, eta azpiegitura horiek garatzeko zehaztapen orokorrak ezartzen dira. Alde bat ezarri da jardun esparruko iparraldean zerbitzu horiek kokatzeko.

Euri uren eta ur beltzen saneamenduaren sarea: Sarean ur beltzak eta euri urak bereizi behar dira. Sareak kalkulatzeko DB-HS 5 "Urak hustea" eraikuntzako kode teknikoak parametroak aplikatuko dira.

Ur beltzen eta zikinen sarearen lotunea Rivasko errepideko isurketagunean egongo da, Camino Alto El Otero parean. Isuri aurretik ur zikinak hondakin uren araztegiaren tratatuko dira. Tratatu ondoren ur beltzekin batuko dira eta hondakin uren ponpatze estazioak lehen aipatutako isurketagunera bideratuko ditu lurpeko hoditik. Hodia polietilenoazkoa izan behar da; diametroa bi hazbete eta erdikoa izan behar da.

Gainaldeko euri urak biltegi batean batuko dira eta lursaileko berdeguneak ureztatzeko erabiliko dira. 55. lursailean drainatze zangak egingo dira urbanizazioko euri urak iragazteko.

Ura hornitzeko sarea: Ura udal saretik hartuko da. Lotunea Rivasko errepidean egongo da, Camino Alto El Otero parean. Hodiak handik lursailaren ipar-ekialdeko zerbitzugunera joango dira. Gune horretan edateko ura tratatzeko estazioa dago; hortik ura kontsumo tokietara bideratuko da. Hodia polietilenoazkoa izan behar da; diametroa bi hazbetekoa izan behar da.

Kontsumo eta emari aurreikuspenak egiteko indarreko araudia aplikatuko da eta upeltegien erabileraren berezko beharrianak hartuko dira kontuan, DB-HS4 kodeak ezartzen duen bezala.

Elektrizitate sarea: Hartunea enpresa hornitzailearekin (Iberdrola) hitzartutako konexiogunean egongo da, baldintzen gutunean adierazten den bezala (erreferentzia: 9020141447; data: 2009ko martxoaren 03a).

Energia elektrikoa dela eta, kontsumitzen denaren ehuneko 30, gutxienez, plaka fotovoltaikoekin eta hiriko haize sorgailuekin sortuko da, eta horretan CTE-DB-HE5 kodea (Energia elektriko fotovoltaikoaren gutxieneko ekarpena) bete beharko da.

Telekomunikazioen-telefoniaren sarea: Lotunea Rivasko errepidean egongo da, Camino Alto El Otero parean. Hodiak handik lursailaren ipar-ekialdeko zerbitzugunera joango dira. Gero, hortik behar diren puntu guztiak konektatuko dira. PVCzko bi hodi jarriko dira (diámetroa: 110), eta behar diren kuxteta guztiak.

Beste sare batzuk: Eraikinen erabilerak eragiten dituen beharrianak (ur beroa eta berokuntza, esaterako) asetzeko behar diren ekipoak lurpean ipini behar dira edo eraikinean integratu behar dira, ingurumenean eraginik ez edukitzeko. Energia iturri alternatiboak erabili behar dira (biomasa, geotermia) edo efizientzia energetiko handiko sistemak.

Eraikuntzak: Sistema honetan egiten diren eraikinek solairu bat bakarrik eduki dezakete; altuera 4 metrokoa izan daiteke gehienez, lurra eraikuntzarekin kontaktuan dagoen puntu bakoitzean neurtuta. Sestra gaineko eraikinak kontuan edukiko dira eraikigarritasunerako eta okupaziorako.

Konposizioa askea izango da, baina paisaian integratu behar da, hau da, haren harmonia eta ikuspegia errespetatu behar dira. Eraikinak lurren topografiara moldatu behar dira, eta ez da egin behar orografia alda dezakeen lur mugimendurik.

Materialak berezko koloreekin erabili behar dira; koloreak soilak eta ingurunerako egokiak izan behar dira. Ezin da erabili kolore pururik ez distiratsurik.

18. artikulua: Bide sistemaren zonei buruzko ordenantzak

Ibilgailuen eta oinezkoen bideen sarea. Bide komunikazioen erabilera xehatuarekin bat dator. Ibilgailuen bideak zein ibilgailuen bideari atxikita ez dauden eta bereziki zona berde eta gune librearen parte ez diren oinezkoen bideak hartzen ditu barnean.

Erabilera bateragarriak:

- Aparkalekua.
- Argi instalazioak eta seinaleak.

– Zona hauetan lurpetik doazen oinarrizko azpiegituren sistemak (ura, estolderia, elektrizitatearen hornidura, telefonia, gasa...) lur gainean dituzten afektazioak.

- Zuhaitzak.
- Hiri altzariak.

Debekatutako erabilerak: aurreko puntuan jasotzen ez diren gainerako erabilerak.

19. artikulua: Zona berdeen eta gune libreen sistemako zonei buruzko ordenantzak

Erabilera bateragarriak:

- Zona honetan lurpetik doazen oinarrizko azpiegituren sistemek (ura, saneamendua, elektrizitatearen hornidura, argiteria, telefonia, gasa...) lur gainean dituzten afektazioak.
- Hirigintzako zerbitzuetarako oinarrizko azpiegitura instalazio txikiak, 50 metro koadro baino gehiago ez dituztenak.
- Hiriko altzariak eta eraikuntza hauek: eserlekuak, paperontziak, iturriak, monumentuak, urmaelak, jostetageak.

Debekatutako erabilerak: aurreko puntuan jasotzen ez diren gainerako erabilerak.

Eraikuntza parametroak 17. artikuluan zehazten dira (Zerbitzu sistemaren zonei buruzko ordenantzak).

20. artikulua: Eraikuntza sistemaren zonei buruzko ordenantzak

Zona honetan jartzeko asmoa dago upeltegiko eta zona osagarrietako eraikuntzak.

Erabilera bateragarriak:

- Zona honetan lurpetik doazen oinarrizko azpiegituren sistemek (ura, saneamendua, elektrizitatearen hornidura, argiteria, telefonia...) lur gainean dituzten afektazioak.

Debekatutako erabilerak: aurreko puntuan jasotzen ez diren gainerako erabilerak.

Eraikuntzen eta muga eta hesien arteko distantziak. Eraikuntzen eta bideen artean 10 metro utzi behar dira gutxienez eta haien eta beste lursailen artean 5 metro.

Otsailaren 13ko 6/95 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko landa bideena, aplikatuz bidearen aurrean dagoen mugarainoko distantzia aurreko zenbakian adierazitakoa baino handiagoa bada, foru arau horretan xedatzen dena beteko da.

Eraikinen arteko distantzia. Eraikinen artean 5 metro utzi behar dira gutxienez.

Baldintza estetikoak eta konposiziokoak. Eraikuntza proiektuen konposizioa askea izango da, baina paisaian integratu behar da, hau da, haren harmonia eta ikuspegia errespetatu behar dira.

Debekatuta dago estandarizatutako eraikuntzak eta eraikuntza errepikagarriak egitea, eta pabiloi industrialak ere bai.

Eraikinak lurren topografiara moldatu behar dira, eta ez da egin behar orografia alda dezakeen lur mugimendurik.

Ezin da egin "soto artifizialik"; aldiz, lurpeko upeltegiak egin daitezke.

Altuerak, bolumenak, kokapenak, masak, hormek eta itxiturek ezin dute eragotzi naturaren edertasuna ikustea, ez paisaiaren harmonia hautsi, ez haren berezko ikuspegia itxuragabetu.

Eraikinen eragin bisuala aztertuko da; azterlanean eragina hori motelduko duten landare hesiak eta bestelako neurri zuzentzaileak ezartzeko proiektua azalduko da.

Materialak berezko koloreekin erabili behar dira; koloreak soilak eta ingurunerako egokiak izan behar dira. Ezin da erabili kolore pururik ez distiratsurik.

Altuera. Altuera 10 metrokoa izan daiteke gehienez, lurra eraikuntzarekin kontaktuan dagoen puntu bakoitzean neurtuta.

Gehieneko altuera gainditu ahal izango da, prozesu teknikorako edo ekoizpenerako beharrezkoa izanez gero.

Sestra gaineko solairuak, gehienez: pabiloietan, solairu bat egin ahal izango da sestra gainean; eraikin esanguratsuetan, sestra gainean bi solairu eta estalkiartea egin ahal izango dira.

Energia berriztagarriak erabiltzea. Energia kontsumoa eraginkortasuna oinarri hartuta egingo da. Horretarako, plan berezi honetan ezartzen da energia berriztagarriak eraginkortasunarekin sortuko dela, kontsumo zuzenerako zein zeharkakorako. inguruaren gaineko eragin kutsatzailea gutxitzeko asmoarekin.

Eraikinetan DbHE4 (EUB: gutxieneko eguzki ekarpena) eraikuntzako kode teknikoan ezartzen dena aplikatuko da. Eskaria (3.1.1) lokalaren edo dena delakoaren erabileraren arabera kalkulatu da, behar diren EUB litroak aintzat hartuta (kontuan eduki beharko da Arabako Errioxa II. zona klimatikoan dagoela).

Gainera, instalazioetan behar izango den energia guztiaren beste zati garrantzitsu bat energiak aprobetxatuz, aldi berean sortzeko prozesuen bitartez edo eraikinekoa ez den beroa berreskuratzeko instalazioetatik etorritako hondakin energia iturrien bitartez lortu behar da.

Energia elektrikoa dela eta, kontsumitzen denaren ehuneko 30, gutxienez, plaka fotovoltaikoekin eta hiriko haize sorgailuekin sortuko da, eta horretan CTE-DB-HE5 kodea (Energia elektriko fotovoltaikoaren gutxieneko ekarpena) bete beharko da.

21. artikulua: Itxierak

Lursailen aurrealdean eta mehelinen lerroetan itxierak homogeneoak izan behar dira; 30 cm-tik gorako tarteak ezin da izan opakua.

Lursaileko itxierak ezin dira izan metro bat altuagoak, segurtasuna edo funtzionaltasuna dela eta beharrezkoa izan ezik (frogatu egin beharko da).

22. artikulua: Urbanizatzearen gauzatzea

Barruko urbanizazioa eta beharrezko azpiegiturak (bideak, uraren hornidura, saneamendua, arazketa, energia) sustatzailearen kontura egingo dira, eraikuntza lanekin batera edo haiek hasi baino lehen.

23. artikulua: Ingurumenaren alorreko irizpideak lursaila oro har antolatzeko

23.1 Lursailaren urbanizazioa, bertako eraikinak eta horiek ingurumenean integratzeko tratamenduak egitean haxe aplikatuko da: Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saileko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak ezartzen duena eta Plan Bereziak ingurumenean edukiko duen eraginaren ebaluazio bateratuak dioena.

23.2 Esparruko ingurumena lehengoratzeko eta paisaia moldatzeko proiektua erantsi da (2. eranskina).

23.3 Ingurumen balioko zonetan ingurumena hobetzeko eta suspertzeko lanak egingo dira landareta autoktonoa dagoen zonak sortzeko: Brachypodium retusum larre xerofiloak; lehen-tasuneko intereseko habitata Habitat naturalen eta fauna eta flora basatiaren kontserbazioari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentarauaren I. eranskinean (kodea: 6220*). Hobetu eta suspertu beharrezko lurak ingurumena hobetzeko eta suspertzeko konpentsazio neurrien proiektuan ezarriko dira.

23.4 Upeltegiarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik narriatutako zonetako ingurumena hobetzeko eta suspertzeko lanak egingo dira; xedea upeltegiaren ezarpenak 6220* habitatean ukitzen duen azalera halako bi suspertzea izango da. Bastidako lurak hobetu eta suspertu behar dira, 20.839,08 m² gutxienez, hau da, upeltegiaren ezarpenak 6220* habitatean ukitzen duen azalera halako bi.

23.5 Lanak amaitutakoan AFAko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuari jakinaraziko zaio, babes neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio neurriak behar bezala aplikatu direnez egiaztatzeko.

24. artikulua: Baimenak

Hondakin urik jabari hidrauliko publikora (ubide naturalak, lurrean iragazi, erretena, eta abar) isurtzeko asmoa edukiz gero, jarduera hasi baino lehen baimena eskatu beharko zaio Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren Isurketak Kontrolatzeko Atalari.

25. artikulua: Zehaztapenak

Ordenantza hauetan zehazten dena aplikatu arren, gaur egun indarrean dagoen legerian ezartzen diren xedapenak eta dokumentu honetako eraikuntza jardueri eta erabilerei aplikatu ahal zaizkien xedapenak ere aplikatu ahal izango dira.